

**INDUSTRIA, MERKATARITZA
ETA TURISMO SAILA****Zk-3064**

AGINDUA, 2003ko maiatzaren 8koa, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuarena. Honen bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko kontsumitzaile-antolakundeei diru-laguntzak emateko programa garatzen da.

Ekonomia sustatzeko hainbat laguntza-lerro ezartzen ditu ekainaren 27ko 121/2000 Dekretuak (2000ko ekainaren 30eko EHAA n.º argitaratua, 125. zk.); bere IV. kapituluaren kontsumo-arloko laguntza-lerroak arautzen ditu, eta 25. artikuluan, kontsumitzaileen antolakundeei laguntzak emateko programa arautzen du. Dekretu horren azken xedapenarik lehendabizikoan, dekretu hori garatzeko eta betearazteko behar diren xedapenak emateko ahalmena ematen zaio Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuordeari.

Aipatutako Dekretuaren babesean, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuak 2000ko ekainaren 30ean Agindua eman zuen, Euskal Autonomia Erkidegoko kontsumitzaile-antolakundeei diru-laguntzak nola eman arautzeko. Ekainaren 30ean 125. zenbakiaz argitaratutako Agindu horretan, erabiltzaileak eta kontsumitzaileak babestearren lanean diharduten Euskal Autonomia Erkidegoko kontsumitzaile-antolakundeei diru-laguntzak emateko programa ezarri zen, erakunde horiek burutzen dituzten jarduera konkretuetan, eta azpiegitura- eta mantentze- gastuetan diruz laguntzeko.

Indarrean jarri zenetik hona, Agindu hori indarrrik gabe utzi, eta, bere ordean, beste bat argitaratu behar dela ikusi da, balorazioa egiteko eta diru-laguntzak zehazteko irizpideak egokitu eta eguneratzeko. Era berean, onuradun bakoitzeko gehieneko muga bat ezartzea ere beharrezkoa dela ikusi da, kontsumitzaileen antolakundeen zentro eta zerbitzuetan sortzen diren azpiegitura-gastuak eta funtzionamenduan, mantentze-lanetan eta babes juridikoa ematerakoan sortzen diren gastuak ordaintzen laguntzeko orduan.

Sail honek kontsumitzaile eta erabiltzaileak babesteko dituen xedeei jarraituz, beharrezkoa da kontsumitzaile antolakundeei aurrera eramaten dituzten jardueri laguntzeko politikari eustea. Helburu horrekin, bada, Agindu honetan arautu da halako antolakundeei diru-laguntzak ematea. Laguntzak ematean, indarrean den aurrekontu legedian agindutako oinarri hauek erabiliko dira: publikitatea, lehia eta objektibotasuna.

Horren guztiaren ondorioz, hau,

**DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
COMERCIO Y TURISMO****Nº-3064**

ORDEN de 8 de mayo de 2003, del Consejero de Industria, Comercio y Turismo, por la que se desarrolla el programa de concesión de ayudas económicas destinadas a Organizaciones de Consumidores del País Vasco.

El Decreto 121/2000, de 27 de junio, por el que se establecen distintas Líneas de Ayudas con Fines de Promoción Económica, publicado en el BOPV n.º 125 de 30 de junio de 2000, regula en el capítulo IV las líneas de ayuda en el área de Consumo, regulando en su artículo 25 el programa de ayudas destinadas a Organizaciones de Consumidores, facultándose en su Disposición Final Primera al Consejero de Industria, Comercio y Turismo para dictar las disposiciones que sean precisas para su desarrollo y ejecución.

Al amparo del citado Decreto, fue dictada la Orden de 30 de junio de 2000, del Consejero de Industria, Comercio y Turismo, por la que se regula la concesión de ayudas económicas destinadas a Organizaciones de Consumidores del País Vasco, publicada en el BOPV n.º 125 de 30 de junio, en la cual se estableció el programa de ayudas económicas destinadas a las Organizaciones de Consumidores del País Vasco que desarrollan actividades dirigidas a la defensa de los consumidores y usuarios, para sufragar los gastos de mantenimiento, de infraestructura y de realización de actividades concretas por parte de estas organizaciones.

En el período de tiempo transcurrido desde su entrada en vigor se ha constatado la necesidad de derogar la citada Orden para actualizar los criterios de valoración, así como modificar los mismos para la determinación de las ayudas. Asimismo se ha considerado necesario establecer una cuantía máxima por beneficiario para sufragar los gastos derivados de funcionamiento, mantenimiento, defensa jurídica y demás gastos de infraestructura de Centros y Servicios de las Organizaciones de Consumidores.

De acuerdo con los objetivos que en materia de defensa de los consumidores y usuarios desarrolla este Departamento, resulta necesario continuar la política de apoyo de las actividades que las Organizaciones de Consumidores llevan a cabo, y con tal finalidad, se regula en la presente Orden el otorgamiento de subvenciones a dichas Organizaciones, conforme a los principios de publicidad, concurrencia y objetividad que la legislación presupuestaria vigente exige.

En su virtud,

ERABAKI DUT:

I. KAPITULUA
XEDAPEN OROKORRAK**1. artikulua.**— Xedea

1.— Kontsumitzaile-antolakundeei zuzendutako laguntzen programaren esparru orokorra garatzea da Agindu honen xedea, betiere, ekainaren 27ko 121/2000 Dekretuaren 25. artikuluan ezarritakoari jarraituz, hor ezartzen baitira ekonomia sustatzeko hainbat laguntza-lerro.

2.— Laguntza-programa horren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko kontsumitzaile-antolakundeei zuzenduta, diru-laguntzak emango dira, mantenimendugastuak, azpiegitura-gastuak eta jarduerak egiteko gastuak ordaintzeko.

2. artikulua.— Ekonomia-baliabideak

Xedapen honetan araututako laguntzak emateko ekonomia-baliabideek sorburu hau izango dute: Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan horretarako ezarritako aurrekontu kredituak. Zenbateko hau aldatu ere egin ahal izango da, betiere, laguntzak emateko ebazpena eman aurretik; horretarako baina, kontuan hartuko da ea eskatutako laguntzak guztira zenbatekoak izan diren, eta, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren beste laguntza-programa batzuk gauzatuak, ea aurrekontu-baliabiderik geratu den agortu gabe. Halakorik izatekotan, egoera horren berri emango du Merkataritza eta Kontsumo sailburuordeak ebazpen bidez.

Agindu honetan ezarritako laguntzak ebazterakoan, lehiaketa-prozedura erabiliko da, 4. artikuluan ezarritako dauden eta diruz lagun daitezkeen kontzeptuetako bakoitzean.

3. artikulua.— Onuradunak

Deialdi honetan araututako diru-laguntzen onuradun, honako hiru baldintzak betetzen dituzten antolakundeak izan daitezke: a) Euskal Autonomia Erkidegoko kontsumitzaile eta erabiltzaileak babestea beste helbururik ez izatea. b) Deialdia indarrean sartzen den unean, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontsumitzaileen Zentsuan (uztailaren 30eko 249/1985 Dekretuaren bidez sortua) erregistratuta egotea. c) Euren jarduerareman Euskal Autonomia Erkidego osoa hartzea.

Kontsumitzaile-antolakundeei kontsumitzaileari informazioa emateko zentroen sarean (CIAC/KIZ-en) sartzeko erabakia dutela erakusten duen agiria aurkeztu beharko dute.

Antolakunde horiek lurralde historiko guztietan izan beharko dituzte ordezkaritzak. Ordezkaritzak gutxienez egunean lau orduz edo astean hogeitau orduz egon behar dira jendearentzat zabalik, eta laguntza juridikoa emateko zerbitzua ere izango dute. Gainera, betekizun

DISPONGO:

CAPÍTULO I
DISPOSICIONES GENERALES**Artículo 1.**— Objeto.

1.— El objeto de la presente Orden es desarrollar el marco general del Programa de ayudas destinadas a Organizaciones de Consumidores establecido en el artículo 25 del Decreto 121/2000, de 27 de junio, por el que se establecen distintas líneas de ayudas con fines de promoción económica.

2.— De acuerdo con dicho Programa de ayudas, se otorgarán ayudas económicas destinadas a las Organizaciones de Consumidores del País Vasco para sufragar los gastos de mantenimiento, de realización de actividades y de infraestructura.

Artículo 2.— Recursos Económicos.

Los recursos económicos destinados a la concesión de las ayudas reguladas en la presente disposición procederán de los correspondientes créditos presupuestarios establecidos al efecto en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi. El volumen total de las ayudas a conceder podrá ser modificado, teniendo en cuenta la cuantía total de las ayudas solicitadas, en función de las disponibilidades presupuestarias no agotadas que resulten de la ejecución de otros programas de ayudas del Departamento de Industria, Comercio y Turismo y con carácter previo a la resolución de las mismas. De la presente circunstancia se dará publicidad mediante Resolución de la Viceconsejera de Comercio y Consumo.

Las ayudas establecidas en la presente Orden, para cada uno de los conceptos subvencionables establecidos en el artículo 4, se resolverán mediante el procedimiento de concurso.

Artículo 3.— Beneficiarios.

Podrán ser beneficiarios de las subvenciones reguladas por la presente convocatoria aquellas Organizaciones que, teniendo como finalidad exclusiva la defensa de consumidores y usuarios de Euskadi, en el momento de entrada en vigor de ésta se hallen inscritas en el Censo de Organizaciones de Consumidores de Euskadi a que se refiere el Decreto 249/1985, de 30 de julio, y su ámbito de actuación incluya la totalidad de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Las Organizaciones de Consumidores deberán presentar Compromiso de Integración en la red de Centros de Información al Consumidor (CIAC).

Las mencionadas Organizaciones deberán contar con delegaciones en cada Territorio Histórico que permanezcan abiertas al público al menos cuatro horas diarias o veinte semanales, disponer de defensa jurídica y no podrán hallarse incursas en procedimiento alguno de

hau bete beharko dute: izaera bereko diru-laguntzak direla eta, itzultze edo zigortze espedienteren baten pean ez izatea.

4. artikulua.— Diruz lagun daitezkeen kontzeptuak

Agindu hau aplikatuz onartzen diren laguntzak, honako kontzeptu hauek direla-eta sortutako gastuak ordaintzeko izango dira:

a) Ekitaldi bakoitzean, kontsumitzaile-antolakundeentzako zentroetan eta zerbitzuetan sortutako gastuak, hauek direla eta: funtzionamendua, mantentzea, babes juridikoa eta gainerako azpiegiturako lanak.

b) Euskal Autonomia Erkidegoan, ekitaldi bakoitzean, burutzen diren kontsumoko proiektuak, honelako jarduerak aintzat hartuta: kontsumitzaile eta erabiltzaileei argibideak, heziketa eta hezkuntza emateko programak; ondasun eta zerbitzuen kalitateari buruzko inkestak edo analisiak; eta, kontsumitzaileen eskubideak babestearren, kontsumitzaileentzako interesgarri diren argitalpenak argitaratu eta zabaltzea.

c) Ekitaldi bakoitzean, kontsumitzaile-antolakundeentzako kontsumo-bulegoak jarri, eraberritu, zabaldu edo hornitzea.

II. KAPITULUA. PROZEDURA

5. artikulua.— Prozedura hastea

Agindu honen bidez araututako diru-laguntzen jendaurreko deialdia egingo da urtero. Diru-laguntzak ematean, oinarri hauek erabiliko dira: publizitatea, lehia eta objektibotasuna. Merkataritza eta Kontsumo sailburuordearen Ebazpen baten bidez egingo da deialdia, eta datu hauek zehaztu behar dira deialdiko iragarria: ekitaldi horretan diru-laguntzak emateko aurrekontu zuzkidura zenbatekoa den, diruz lagundutako kontzeptuetako bakoitzari emandako kopurua berezita; Agindu honetan jasotako zenbatekoak kontsumorako prezioen indizeari jarraituz eguneratuko direla erabakiz gero, horren adierazpena; eskabideak noiz eta non aurkeztu behar diren, eta eskabidea egiteko eredia non jaso daitekeen.

6. artikulua.— Eskabideak

1.— Agindu honetan araututako diru-laguntzak jaso nahi dituzten antolakundeek, Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko Kontsumo Zuzendaritzari zuzendu behar dizkiote eskabideak, eta aurkeztu, urteko deialdi-ebazpenean adierazitako lekuetan aurkeztu behar dituzte.

7. artikulua.— Agiriak

Ondorengo agiriak aurkeztu beharko dira eskabide orriarekin batera:

1) Elkartearen idazkariak egindako ziurtagiria. Datu hauek azaldu beharko dira hor: bazkide-kopurua, bazkide-motak zehaztuta; azkeneko ekitaldian bildutako kuotak; kuoten ordainketa egunean duten bazki-

reintegro o sancionador iniciado en el marco de subvenciones o ayudas de la misma naturaleza.

Artículo 4.— Conceptos subvencionables.

Las ayudas que se concedan en virtud de la presente Orden tendrán por objeto sufragar los gastos derivados de los siguientes conceptos:

a) Funcionamiento, mantenimiento, defensa jurídica y demás gastos de infraestructura de Centros y Servicios de las Organizaciones de Consumidores generados en cada ejercicio.

b) Proyectos de consumo que se lleven a cabo en el territorio de la Comunidad Autónoma de Euskadi en cada ejercicio, que podrán incluir actividades como ejecución de programas de información, formación y educación de consumidores y usuarios; realización de encuestas o análisis sobre calidad de bienes y servicios; edición y divulgación de publicaciones de interés para consumidores y relacionadas con la defensa de sus derechos.

c) Instalación, reforma, ampliación o equipamiento de las oficinas de consumo de las Asociaciones de Consumidores realizadas en cada ejercicio.

CAPÍTULO II PROCEDIMIENTO

Artículo 5.— Iniciación del procedimiento.

Las ayudas convocadas en la presente orden serán objeto de convocatoria pública anual y se otorgarán bajo los principios de publicidad, concurrencia y objetividad. La convocatoria se realizará mediante Resolución de la Viceconsejera de Comercio y Consumo y en la misma se determinará el importe de la consignación presupuestaria destinada al otorgamiento de las subvenciones en ese ejercicio, desglosando las cantidades destinadas a cada uno de los conceptos subvencionados, así como la posible actualización de las cuantías establecidas en la presente Orden conforme al IPC, el plazo y lugar de presentación de las solicitudes, y los lugares donde se facilite un modelo de solicitud.

Artículo 6.— Solicitudes.

Las organizaciones interesadas en las ayudas económicas previstas en la presente Orden habrán de dirigir sus solicitudes a la Dirección de Consumo del Departamento de Industria, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco, y se presentarán en los lugares especificados en la Resolución de la Convocatoria anual.

Artículo 7.— Documentación.

La documentación que deberá acompañar a la instancia de solicitud será la siguiente:

1) Certificación del Secretario de la Organización en la que conste el número de socios, con especificación de las diversas clases de los mismos, las cuotas recaudadas en el último ejercicio, los socios que se hallen al corrien-

deak. Datu horiek guztiak eskabidea egiten den unekoak behar dira izan. Gainera, azkeneko urteko bazkide-sarrerak eta -irteerak ere zehaztu beharko dira.

2) Elkartearen idazkariak egindako ziurtagiria, kontsumitzaileari informazioa emateko zentroen sarean (CIAC/KIZ-en) sartzeko konpromisoa erakusteko.

3) Deialdiaren urteko sarrera eta gastuen aurrekontua.

4) Kontsumitzaile-antolakundearen organigrama hierarkiko eta funtzionalaren azalpen xehekatua.

5) Antolakundeak Euskal Autonomia Erkidegoan dituen ordezkartzen zerrenda, halakorik izanez gero. Ordezkaritza bakoitzaren helbidea, jendearentzako harre-ra-ordutegia eta dituen langileak zehaztu beharko dira.

6) Urte horretan eta aurrekoan langileei emandako ordainsariak justifikatzeko agiriak.

7) Idazkariaren ziurtagiria, antolakundeak bulegoetan dituen tresnak zeintzuk diren azaltzen duena.

8) Aurreko urtean erantzundako, eta, martxan jarri zenetik, Kontsumonet aplikazio informatikoan jasotako galdera eta erreklamazioen kopurua.

9) Bitartekotzen, arbitrajeen eta banakoek nahiz taldeek aurkeztutako auzi-eskeen kopurua, aurreko urtekoa.

10) Idazkariaren ziurtagiria, sektore- edo aholkularitza-batzordeetan izandako parte-hartzeari eta Administrazio publikoekin nahiz erakunde pribatuekin egindako elkarlanei buruzkoa.

11) Aurreko urtean hedabideetan egindako esku-hartzeak eta kolaborazioak.

12) Aurreko urtean argitaratutako argitalpen guztien (liburuxka, liburu, eskuliburu, aldizkari...) ale baina.

13) Deialdiaren aurreko ekitaldian egindako jardueren txostena, parte-hartzaileen kopurua eta ekitaldi horien iraupena zehaztuta.

14) Helburu bererako eskatutako edo onartutako beste diru-laguntzei buruzko justifikazioa.

15) Finantza-erakundea, sukurtsala, uneko titularra eta kontu-zenbakia, onartzen baldin bazaio, onartzen zaion diru-laguntza han sartzeko.

16) Antolakundeko idazkariak emandako ziurtagiria. Honako hau azaldu behar du: funtzionamendu- eta instalazio-gastuen aurrekontua, behar bezala xehakatua.

17) Kontsumo-proiektuak egiteko laguntza eskatzen duten antolakundeek, gainera, txosten bat aurkeztu beharko dute, honako datu hauek azaltzeko:

– Eskatutako laguntzaren xede izango den jarduerekin, zein helburu lortu nahi diren.

– Aurreikusitako jarduera-egitaraua.

te en el pago de sus cuotas, todo ello a la fecha de la solicitud y las altas y bajas habidas en el último año.

2) Certificación del Secretario de la Organización que recoja el compromiso de integración de la asociación en la red de Centros de Información al Consumidor (CIAC)

3) Presupuesto de ingresos y gastos correspondiente al año de la convocatoria.

4) Descripción detallada del Organigrama jerárquico y funcional de la Organización de Consumidores.

5) Relación de delegaciones de la Organización existentes, en su caso, en la Comunidad Autónoma de Euskadi con indicación del domicilio de las mismas, personal que las atiende y horario de atención de las mismas.

6) Documentación justificativa de las retribuciones al personal correspondientes al año en curso y al anterior.

7) Certificado del Secretario en el que se haga constar el equipamiento existente en sus oficinas.

8) Número de consultas y reclamaciones atendidas el año anterior y recogidas en la aplicación Kontsumonet, a partir de su puesta en marcha.

9) Número de demandas judiciales individuales o colectivas, mediaciones y arbitrajes realizadas durante el año anterior.

10) Certificación del Secretario de la participación en Consejos Sectoriales o Consultivos y colaboraciones con Administraciones Públicas o Instituciones Privadas.

11) Intervenciones y colaboraciones en medios de comunicación correspondientes al año anterior

12) Un ejemplar de todos las publicaciones y ediciones (folletos, libros, manuales, boletines) publicados el año anterior.

13) Memoria de las actividades realizadas durante el ejercicio anterior al de la convocatoria, indicando n.º de asistentes y duración de dichas actividades.

14) Presentación de justificación relativa a otras subvenciones solicitadas o concedidas para el mismo fin.

15) Entidad Financiera, sucursal, titular actualizado y número de cuenta para el Ingreso, en su caso, de la subvención concedida.

16) Certificado del Secretario de la Organización que recoja el presupuesto debidamente desglosado de los gastos de funcionamiento e instalación.

17) Aquellas Organizaciones que soliciten la ayuda para realización de proyectos de consumo deberán acompañar, además, una Memoria en la que se especifique:

– Objetivos que persigue la actividad para la que se solicita la ayuda.

– Programa de actividades previsto.

– Jardueraren hartzaileak eta izango duen onuradun-kopurua.

– Proiektuaren arduradunak nor diren eta haien lana balioztatzeako indizeak.

– Erakunde laguntzaileak, halakorik izanez gero.

– Aurreikusitako tokia, hasiera-eguna eta iraupena.

– Gastuen aurrekontu xehatua, finantzaketa-iturriak adierazita.

18) Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kargura emandako diru-laguntzen onuradunek zerga-obligazioak betetzen dituztela egiaztatzeari buruz, Ogasun eta Finantza sailburuak 1991ko urriaren 7an emandako Aginduan adierazitako egoerak gertatzen direnean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak, eskatzaileak berariaz horretarako baimena ematen badu, diru-laguntzen eskatzaileek zerga-obligazioak beteta dituztela egiaztatzeako ziurtagiria egiteko eskatuko die zuzenean zerga-arloan eskudun diren organoei. Espedientean interesatuen berariazko baimen hori jasotzen ez bada, interesatuek eurek aurkeztu beharko dute dagokien ziurtagiria.

8. artikulua.– Laguntzak kudeatzeko organoa

Kontsumo Zuzendaritzaren ardura da deialdi hone-tan araututako laguntzak kudeatzeko lanak egitea.

9. artikulua.– Aurkeztutako eskabide orriko akatsak zuzentzea

Aurkeztutako eskabidean okerren bat edo zehaztasun eza ikusten bada, eskatzaileari jakinaraziko zaio, eta 10 eguneko epea emango zaio zuzentzeko. Eta gainera jakinaraziko da eskabidea bertan behera utzitzat joko dela, baldin eta epe horretan zuzenketak aurkezten ez badira, horrela agintzen baitu azaroaren 26ko 30/1992 Legeak (Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legea) 71.1 artikuluan.

10. artikulua.– Epaimahai Kalifikatzailea

Aurkeztutako eskabideak aztertu eta balioztatzeako, kide hauekin osatutako Epaimahai Kalifikatzailea sortuko da.

– Lehendakaria: Kontsumo zuzendaria.

– Epaimahaikideak: Prestakuntzako teknikaria, Informazioko teknikaria eta Kontsumoko Arbitraia Batzordeko idazkaria.

– Idazkari: Azterketa eta Plangintza teknikaria.

Epaimahai horrek dagokion ebazpen-proposamena igorriko dio Merkataritza eta Kontsumo sailburuordeari, diru-laguntzen zenbatekoa zehazteko irizpideak kontuan hartuta.

11. artikulua.– Laguntzen zenbatekoa

– Destinatarios de la actividad y número de beneficiarios de ésta.

– Equipo humano responsable del proyecto e índices de evaluación de éste.

– Entidades colaboradoras, en su caso.

– Lugar, fecha de inicio y duración prevista.

– Presupuesto detallado de gastos, con indicación de las fuentes de financiación.

18) Cuando se den los supuestos establecidos en la Orden de 7 de octubre de 1991, del Consejero de Hacienda y Finanzas, sobre acreditación del cumplimiento de obligaciones tributarias por los beneficiarios de subvenciones con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi, o en la normativa que le sustituya, la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, siempre que cuente con autorización expresa del peticionario, solicitará directamente a los órganos competentes en materia tributaria la expedición de certificación acreditativa del cumplimiento de las obligaciones tributarias por los solicitantes de las ayudas y subvenciones. En el supuesto de que no constase en el expediente la citada autorización expresa de los interesados, éstos deberán aportar el correspondiente certificado.

Artículo 8.– Órgano de gestión de las ayudas

Corresponderá a la Dirección de Consumo la realización de las tareas de gestión de las ayudas previstas en la presente convocatoria.

Artículo 9.– Subsanción de defectos en la solicitud presentada

Si se advirtiera en la solicitud presentada la existencia de algún defecto o inexactitud, se requerirá al solicitante para que un plazo de 10 días proceda a su subsanación, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistido de su petición, de conformidad con lo establecido en el artículo 71.1 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Artículo 10.– Tribunal Calificador.

Para el análisis y evaluación de las solicitudes presentadas se constituirá un Tribunal Calificador compuesto por los siguientes miembros:

– Presidente, Director de Consumo.

– Vocales, el Técnico de Formación, el Técnico de Información y la Secretaria de la Junta Arbitral de Consumo.

– Secretario, el Técnico de Estudios y Planificación.

Dicho Tribunal, en base a los criterios de cuantificación de las subvenciones elevará la oportuna propuesta de resolución a la Viceconsejera de Comercio y Consumo.

Artículo 11.– Cuantía de las subvenciones.

1.– Aurreko 4.a) eta 4.c) artikuluetan adierazitako kontzeptuetarako diru-laguntzak kalkulatzeko, honako irizpide hauek hartuko dira oinarri:

– Aurreko urtean erantzundako, eta, martxan jarri zenetik, Kontsumo Net aplikazio informatikoan jasotako galdera eta erreklamazioen kopurua, gehienez ere, 20 puntu.

– Aurreko ekitaldian egindako bitartekaritza-lanen kopurua, gehienez ere, 10 puntu.

– Aurreko urtean aurkeztutako arbitraje-eskabideen kopurua, gehienez ere, 10 puntu.

– Banaka nahiz taldeka, administrazio-bidetik zein auzi-bidetik burututa, kontsumitzaileen interesak babesteko jardueren kopurua, aurreko urtean aurkeztutakoak, gehienez ere, 10 puntu.

– Kualifikazio-maila eta euskararen ezaupen-maila zehaztuta, jendeari laguntzeko bulegoen kopurua eta jendeari harrera egiten emandako denbora, gehienez ere, 15 puntu.

– Norberaren diru-sarrerak, gehienez ere, 10 puntu.

– Bazkideen kopurua, gehienez ere, 10 puntu.

– Hedabideen bitartez gizartean duen presentzia, gehienez ere, 15 puntu.

2.– Bestetik, 4 b) artikuluan zehaztutako kontsumo-proiektuak ordaintzera zuzendutako diru-laguntzak, era honetako proiektuei emango zaizkie:

– Informazioa (sentsibilizazio-kanpainak, argitalpenak, beri emateko paperak, aldizkariak eta web-gutuneak).

– Prestakuntza (ikastaroak, jardunaldiak eta hitzaldi-zikloak).

– Elkarrekin sortzeko lana sustatzea.

– Proiektuetako bakoitza baloratzerakoan honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:

– Proiektuaren garapena eta iraupena, gehienez ere, 35 puntu.

– Proposatutako jardun-mota eta bere garrantzia, gehienez ere, 25 puntu.

– Proiektuaren xede den pertsona-kopurua, gehienez ere, 20 puntu.

– Bi federaziok edo gehiagok elkarrekin proiektuak burututzea, gehienez ere, 20 puntu.

Aurrekontuaren barruan langileentzako ordain-sariak sartu ahal izango dira, gehienez ere, %20, eta gastu orokorrak ere bai, gehienez ere, %10.

1.– El cálculo para determinar las ayudas dirigidas a sufragar los conceptos previstos en el artículo 4 a) y c) se realizará en base a los siguientes criterios:

– Número de consultas y reclamaciones atendidas en el año anterior y recogida en la aplicación Kontsumo Net a partir de su puesta en marcha, se valorará hasta un máximo de 20 puntos.

– Número de mediaciones realizadas en el ejercicio anterior, se valorará hasta un máximo de 10 puntos.

– Número de solicitudes de arbitraje presentadas el año anterior, se valorará hasta un máximo de 10 puntos.

– Número de actuaciones en defensa de los intereses de los consumidores, llevada a cabo mediante la vía administrativa o judicial, a través de procesos, tanto individuales como colectivos, presentados al año anterior, se valorará hasta un máximo de 10 puntos.

– Oficinas de atención al público (con detalle de su cualificación y nivel de conocimiento de euskera) y tiempo de atención al público, se valorará hasta un máximo de 15 puntos.

– Ingresos propios, se valorará hasta un máximo de 10 puntos.

– Número de socios, se valorará hasta un máximo de 10 puntos.

– Presencia social en los medios de comunicación, se valorará hasta un máximo de 15 puntos.

2.– Las ayudas dirigidas a sufragar proyectos de consumo previstos en el artículo 4 b) serán otorgadas a proyectos relativos a:

– Información (campañas de sensibilización, publicaciones, folletos divulgativos, revistas y sitios web).

– Formación (cursos, jornadas y ciclos de conferencias).

– Fomento del asociacionismo.

– Para la valoración de cada proyecto se tendrán en cuenta los siguientes criterios:

– Desarrollo y duración del proyecto, se valorará hasta un máximo de 35 puntos.

– Relevancia y tipo de actividad de las acciones propuestas, se valorará hasta un máximo de 25 puntos.

– Número de personas a las que va dirigido el proyecto, se valorará hasta un máximo de 20 puntos.

– Realización de proyectos de manera conjunta, entre dos o más federaciones, se valorará hasta un máximo de 20 puntos.

Dentro del presupuesto podrán incluirse, gastos en retribuciones al personal, hasta un 20% y, gastos generales, hasta un 10%.

Diru-laguntzak ematerakoan, bakar-bakarrik hartuko dira kontuan 60 puntu edo hortik gorako puntuazioa lortzen duten proiektuak.

3.– Agindu honen 4. artikuluko a), b) eta c) idatzietan adierazitako kontzeptuak direla-eta, onuradunetako bakoitzak lortu ahal izango duen diru-kopurua, ezin izango da onartutako aurrekontuaren %70 baino handiagoa izan.

Dena den, 4 a) artikuluan aurreikusitako gastuak ordaintzeko, kontzeptu horregatik onuradun bakoitzak lor dezakeen diru-kopurua 90.000 eurokoa izango da gehienez jota.

4.– Artikulu honetako 1. eta 2. puntuetan zehaztutako portzentajeak eta 3. puntuaren ezarritako mugak onartutako aurrekontuetan aplikatutakoan, eman beharreko diru-laguntzen zenbateko osoak erabilgarri dagoen aurrekontu-kreditua gainditzen badu, proportzionalki, dagokion hainbanaketa egingo da onuradun guztien artean.

12. artikulua.– Beste diru-laguntzekiko bateragarritasuna

Diru-laguntzak bateragarri izango dira helburu horietarako onartzen den beste edonolako laguntzarekin. Betiere, onartutako diru-laguntzen guztizkoa ezin da jarduerarako aurrekontuaren %100 baino handiagoa izan. Gehieneko neurri hori gaindituz gero, diru-laguntzaren zenbatekoa dagokion neurriraino murriztuko da.

13. artikulua.– Ebazpena

1.– Merkataritza eta Kontsumo sailburuordeak, Epaimahai Kalifikatzaileak emandako proposamena ikusi ondoren, aurkeztutako eskabideak ebatziko ditu. Horretarako, sei hilabeteko epea izango du, eskabideak aurkezteko epea bukatzen denetik hasita. Ebazpen hori esleipendunei jakinaraziko zaie, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

2.– Eskatzaileei diru-laguntzak emateko ebazpenak banan-banan jakinarazteaz gain, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian onuradunen zerrenda eta emandako diru-laguntzen zenbatekoa argitaratuko dira, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuko 49.2 artikuluan xedatutakoari jarraituz.

3.– Ebazpen horrek ez du administrazio-bidea amaitzen, eta haren aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuari, azaroaren 26ko 30/1992 Legean xedatutako epea eta era errespetatuz.

4.– Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 44. artikuluan xedatutakoarekin bat, ebazpena emateko epea amaitu, eta interesdunari ez bazaio horren berri eman, laguntza-eskabidea ukatu egin dela ulertu beharko da.

Sólo serán tenidos en cuenta, para la concesión de ayudas, aquellos proyectos que tengan una puntuación igual o superior a 60 puntos.

3.– La cuantía que un beneficiario podrá obtener por los conceptos contemplados en los apartados a), b) y c) del artículo 4 de la presente Orden, no podrá ser superior al 70% del presupuesto aprobado.

Ello no obstante, para sufragar los gastos previstos en el artículo 4 a), la cuantía máxima por beneficiario para este concepto será de 90.000 Euros.

4.– Si una vez aplicados los porcentajes descritos en los puntos 1 y 2 de este artículo a los presupuestos aprobados, así como la limitaciones previstas en el punto 3 del mismo, el importe total de las subvenciones a conceder superase el crédito presupuestario disponible, se aplicará a todos los beneficiarios el correspondiente prorrateo.

Artículo 12.– Compatibilidad con otras subvenciones.

Las subvenciones serán compatibles con cualesquiera otras ayudas que pudieran otorgarse para tales fines, siempre que el importe total de las subvenciones concedidas no supere el 100% de la cantidad presupuestada para la actividad. En este último caso se reducirá el importe de la subvención hasta el límite máximo que corresponda.

Artículo 13.– Resolución.

1.– La Viceconsejera de Comercio y Consumo, a la vista de la propuesta elevada por el Tribunal Calificador, resolverá las solicitudes presentadas en el plazo de seis meses a contar desde la finalización del plazo de presentación de solicitudes. Dicha Resolución será notificada a los adjudicatarios y publicada en el Boletín oficial del País Vasco.

2.– Sin perjuicio de la notificación individual a los solicitantes de la resolución de concesión de ayuda, se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco la relación de los beneficiarios e importe de subvención concedida, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 49.2 del Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre.

3.– La Resolución que recaiga no agotará la vía administrativa, pudiendo interponerse recurso de alzada ante el Consejero de Industria, Comercio y Turismo en el plazo y forma establecidos por la Ley 30/92, de 26 de noviembre.

4.– De conformidad con lo dispuesto en el artículo 44 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, una vez transcurrido el plazo previsto para dictar resolución sin que ésta se haya notificado al interesado, podrá entenderse desestimada la ayuda solicitada.

14. artikulua.– Diru-laguntza ordaintzea.

1.– Ordainketa izapidetzen ari dela, Ogasun eta Finantza sailburuak Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren dirulaguntzen onuradunek zerga-betebeharrak beteta dituztela egiaztatzeari buruz 1991ko urriaren 7an emandako Aginduan, edo hori ordezkatzeko araudian, ezarritako egoeraren bat gertatuz gero, aipatutako egiaztapen hori Agindu honen 7. artikuluko 18. idatz-zatian ezarritako moduan egitza da.

2.– Onartutako diru-laguntzak honela ordainduko dira:

– Onartutako zenbatekoaren %75, aldeko ebazpena ematen den ulean.

– Gainerako %25, berriz, Agindu honetako 4. artikuluko a), b) eta c) idatz zatietan sartutako gastu guztiak justifikatutakoan. Hala ere, salbuespen gisa, kopuru hori lehenago ordaintzea eskatu ahal izango da. Horretarako, ezinbestekoa izango da bankuko abal egokiaren bidez bermatzea. Banku-abalak laguntzaren kopuru izenduna gehi haren interesak estali behar ditu, urtebete baino luzeagoa izango ez den epe batez. Egin daitekeen erreklamazio judizial edo estrajudizialerako, kopuru izendunaren ehuneko hamabostekoa izango da, gehienez.

15. artikulua.– Diru-laguntza justifikatzea.

1.– Emandako diru-laguntza justifikatzeko, onuradunak, deialdiaren hurrengo urteko martxoaren 31 baino lehen, agiri hauek aurkeztu behar ditu:

a) Egindako jardueren txostena eta egindako gastua justifikatzeko fakturak. Fakturak originalak edo fotokopia konpultsatuak izan beharko dira. Fakturen data ezin izango da diru-laguntza onartu zen urteko abenduaren 31 baino geroagokoa izan. Fakturretan, antolakundeko lehendakariaren onespena agertu beharko da.

b) Kontratu mugagabeko langileriari buruzko justifikazioak, nahitaez, eredu ofizialari jarraituz egindako nominetan aurkeztu behar dira. Horiekin batera, Gizarte Segurantzako kotizazioen egiaztatgiriak ere aurkeztu behar dira.

c) Aldi baterako lankidetzak ordaintzeko gastuak diru-eta, justifikazioak ordainagiritan aurkeztuko dira. Agiri horietan, datu hauek agertu behar dira: nori ordaindu zaion, haren nortasun agiriko zenbakia, zein kontzepturengatik ordaintzen zaion, eta PFEZari dagokion atxikipena.

2.– Kontsumo Zuzendaritzak egoki deritzen egiaztapenak egin ahal ditu emandako laguntza ekonomikoei buruz, eta laguntza hori egiaztatzen duten agiriak ere aztertzeke eskubidea izango du.

3.– Gerta daiteke justifikazioan ageri diren gastuak, diru-laguntza emateko onartutako aurrekontutik desbideratzea. Desbideratze hori %15ekoa baino handia-

Artículo 14.– Pago de la subvención.

1.– En la fecha en que se tramite el pago, cuando den los supuestos establecidos en la Orden de 7 de octubre de 1991, del Consejero de Hacienda y Finanzas, sobre acreditación del cumplimiento de obligaciones tributarias por los beneficiarios de subvenciones con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi, o en la normativa que le sustituya, la referida acreditación se realizará en la forma establecida en el apartado 18 del artículo 7 de la presente Orden.

2.– El pago de las subvenciones adjudicadas se hará de la siguiente forma:

– El 75% de la cuantía concedida, en el momento en que recaiga la resolución favorable.

– El 25% restante, una vez justificado el total de los gastos encuadrados en los apartados a) b) y c) del artículo 4 de la presente Orden. No obstante, y con carácter excepcional, podrá solicitarse el abono anticipado de esta cantidad cuando lo garanticen debidamente mediante el correspondiente aval bancario, que deberá cubrir el nominal de la ayuda más los intereses del mismo por un plazo no superior a un año y hasta un quince por ciento del nominal para los costes y gastos de la eventual reclamación judicial o extrajudicial.

Artículo 15.– Justificación de la subvención.

1.– Para la justificación de la subvención concedida, la Organización de Consumidores deberá presentar antes del 31 de marzo del año siguiente a la convocatoria la siguiente documentación:

a) Memoria de las acciones realizadas y facturas justificativas del gasto efectuado. Las facturas deberán ser originales o fotocopias compulsadas con fecha no posterior al 31 de diciembre del año en que se concedió la subvención, figurando en las mismas la conformidad del Presidente de la Organización.

b) Las justificaciones correspondientes al personal fijo se presentarán necesariamente en nóminas ajustadas al modelo oficial, acompañadas de los justificantes de cotización a la Seguridad Social.

c) Las justificaciones correspondientes a colaboraciones de carácter temporal figurarán en recibos donde consten los datos del perceptor, su DNI, el concepto por el que se retribuye y la retención correspondiente del I.R.P.F.

2.– La Dirección de Consumo podrá realizar las comprobaciones que estime oportunas respecto a la ayuda económica concedida y tendrá acceso a toda la documentación justificativa de la misma.

3.– Si en la justificación de los gastos se produce una desviación superior al 15% e inferior o igual al 25% respecto al presupuesto aprobado para la concesión de

goa eta %25ekoa edo txikiagoa denean, laguntza hori txikitu egingo da, dagokion aldaketa-ebazpena eman da horretarako. Hartara, diru-laguntza kalkulatzeko aurrekontuko kopuruari aplikatu zitzaion ehuneko bera aplikatuko zaio benetan gastatutako kopuruari.

4.– Baldin desbideratzea %25ekoa baino handiagoa bada, horrek diru-laguntza jasotzeko eskubidea galtzea ekarriko du, Agindu honen 17. artikuluan ezarritakoari jarraituz. Hala ere, laguntza ekonomikoa emateko arrazoi izan ziren helburu guztiak bete direla justifikatuz gero, ez da eskubide hori galduko. Bigarren egoera horretan, diru-laguntza txikitu egingo da, aurreko paragrafoan araututako eran.

5.– Diru-laguntzaren onuradunak, halakoetan, itzuli beharko ditu neurritz gain jasotako kopuruak, gehinez ere, bi hilabeteko epean, itzulketa-ebazpenaren jakinarazpena jasoz duenetik hasita. Hori halaxe izango da abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritakoaren arabera, hor arautzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura egiten diren berme eta sarreraren erregimen orokorra, eta hor finkatzen baitira horren kudeaketan parte hartzen duten erakunde lankideen baldintzak, erregimena eta betebeharrak.

16. artikulua.– Onuradunaren betebeharrak

Agindu honen bidez araututako laguntzak jaso dituzten kontsumitzaile-antolakundeek ondorengo betebeharrak izango dituzte, betiere:

1.– Emandako diru-laguntza onartzea. Hartara, diru-laguntza eman zaiola jakinarazteko agiria jasoz duenetik hamar egun igarota, erakunde onuradunek berriaz eta idatziz bekari uko egin ez badiote, diru-laguntza onartu dutela ulertuko da.

2.– Jasotako diru-laguntza onartutako helbururako erabiltzea, eta horretarako bakarrik; eta, jasotako diru-laguntzen zertarako fiskalizatzeko dituzten zereginak aurrera eramanez, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eskatzen dieten informazio oro ematea.

3.– Kontsumitzaile-antolakundearen bulegoetan egindako argibide-eskaerak eta jasotako kexak kudeatzekoan, Kontsumonet informatika-aplikazioa erabiltzea, horrek biltzen baititu bere baitan CIAC/KIZ sareko zentro guztien jarduerak.

4.– Jarduera, argitalpen, azterketa eta inkestek Kontsumo Zuzendaritzaren arauzko oniritzia izan beharko dute.

5.– Diruz lagundutako jardueren berri zabaltzean edo, hala badagokio, argitaratzean, Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren babesa berriaz agertaraztea. Horretarako ere, Kontsumo Zuzendaritzaren arauzko oniritzia izan beharko da.

la subvención, se procederá, mediante la correspondiente resolución de modificación, a una minoración de la cuantía de la subvención concedida, de tal manera que se aplicará a la cantidad realmente gastada el mismo porcentaje que se aplicó a la cantidad presupuestada para el cálculo de la subvención.

4.– Una desviación superior al 25% dará lugar a la pérdida del derecho a la subvención, en los términos establecidos en el artículo 17 de la presente Orden, excepto en el caso de que se justifique que se han cumplido todos los objetivos por los cuales se concedió la ayuda económica. En este supuesto, se procederá a la minoración de la cuantía de la subvención en la forma prevista en el párrafo anterior.

5.– El beneficiario de la subvención tendrá la obligación de devolver, en su caso, las cantidades percibidas en exceso en un plazo máximo de dos meses a contar desde la notificación de la Resolución de reintegro, de conformidad con lo establecido en el Decreto 698/1991, de 17 de diciembre, por el que se regula el régimen general de garantías y reintegros de las subvenciones con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi y se establecen los requisitos, régimen y obligaciones de las Entidades Colaboradoras que participen en su gestión.

Artículo 16.– Obligaciones del beneficiario.

Las Organizaciones de Consumidores que hayan recibido ayudas de las establecidas en esta Orden, deberán cumplir en todo caso las siguientes obligaciones:

1.– Aceptar la subvención concedida. En este sentido, si en el plazo de 10 días tras la fecha de recepción de la comunicación por la que se notifica la concesión de la subvención las entidades beneficiarias no renuncian expresamente y por escrito a la misma, se entenderá que ésta queda aceptada.

2.– Utilizar la subvención para el concreto destino para el que ha sido concedida, y facilitar a la Oficina de Control Económico y al Tribunal Vasco de Cuentas la información que le sea requerida en el ejercicio de sus funciones respecto de las subvenciones recibidas.

3.– Gestionar todas las consultas y reclamaciones atendidas en las distintas oficinas de las asociaciones de consumidores a través de la aplicación informática Kontsumonet, que integra las actuaciones de todos los centros pertenecientes a la red CIAC.

4.– Las actividades, publicaciones, estudios y encuestas deberán contar con el preceptivo visto bueno de la Dirección de Consumo.

5.– Hacer constar expresamente el patrocinio del Departamento de Industria, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco en todas aquellas actividades subvencionadas que conlleven la divulgación, difusión o, en su caso, publicación de las mismas, para lo que será necesario contar con el preceptivo visto bueno de la Dirección de Consumo.

17. artikulua.– Ez betetzeak

Gerta daiteke onuradunak ez betetzea bere betebeharrak, gastuak behar bezala ez justifikatzea, eskabidean azaldu ez bezalako aplikazioa egitea, edo, oro har, Agindu honetan ezarritako baldintzaren bat ez betetzea. Halakoetan, onuradunari diru-laguntza kenduko zaio. Onuradunak, gainera, jaso duen dirua (dagozkion legezko interesekin batera) Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli beharko dio. Horrekin batera, aintzakotzat hartuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Ogasun Nagusiaren Antola Arauei buruzko Legearen testu bateginaren 53. artikuluan eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritako goerak.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Honako Agindu hau indarrean sartutakoan, baliorik gabe geratuko da Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuak 2000ko ekainaren 30ean emandako Agindua, Euskal Autonomia Erkidegoko kontsumitzaile-antolakundeei diru-laguntzak nola eman arautzen duena.

AZKEN XEDAPENAK

Lebenengoa.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean Agindu hau.

Bigarrena.– Agindu honen aurka, Administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri ahal izango da, Euskal Herriko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salari zuzenduta. Horretarako, bi hilabeteko epea izango da, Agindu hau argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2003ko maiatzaren 8a.

Industria, Merkataritza eta Turismo sailburua,
JOSU JON IMAZ SAN MIGUEL.

Zk-3065

AGINDUA, 2003ko maiatzaren 19koa, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuarena; honen bidez, «ELKARTZEN Programa» arautzen da, irabazi-asmorik gabeko erakundeei kanpo-sustapeneko jarduerak garatzeko laguntzak ematekoa.

Jakina denez, irabazi-asmorik gabeko hainbat erakundek lan egiten dute Euskal Autonomia Erkidegoko enpresak nazioartean ere zabal daitezen, eta, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak finkatutako laguntzen esparruan, beharrezko zaigu jarduera horiei la-

Artículo 17.– Incumplimientos.

Además de los supuestos establecidos en el artículo 53 del Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco y en el Decreto 698/1991, de 17 de diciembre, el incumplimiento de las obligaciones del beneficiario, la falta de justificación de los gastos, una aplicación diferente a la señalada en la solicitud y/o, en general, el incumplimiento de alguno de los requisitos exigidos en la presente Orden, darán lugar a la retirada de las subvenciones, debiendo, el beneficiario de la ayuda, reintegrar las cantidades obtenidas con los intereses legales a la Tesorería General del País Vasco.

DISPOSICION DEROGATORIA

A la entrada en vigor de la presente Orden quedará derogada la Orden de 30 de junio de 2000, del Consejero de Industria, Comercio y Turismo, por la que se regula la concesión de ayudas económicas destinadas a Organizaciones de Consumidores del País Vasco.

DISPOSICIONES FINALES

Primera: La presente Orden entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Segunda: Contra la presente Orden podrá interponerse recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de publicación de la presente Orden.

En Vitoria-Gasteiz, a 8 de mayo de 2003.

El Consejero de Industria, Comercio y Turismo,
JOSU JON IMAZ SAN MIGUEL.

Nº-3065

ORDEN de 19 de mayo de 2003, del Consejero de Industria, Comercio y Turismo, por la que se regula el «Programa ELKARTZEN», sobre Ayudas destinadas a Entidades sin Ánimo de Lucro para la realización de actividades de promoción exterior.

Dentro del marco global de ayudas establecidas por el Departamento de Industria, Comercio y Turismo, resulta obligado continuar con la acción emprendida de apoyo y fomento de las distintas actuaciones que realizan ciertas Entidades sin Ánimo de Lucro en el campo